ZER
ALDIZKARIA
449. zenbakia
2018 BAGILLA

Bizkaitarrei Bizkaieraz

www.euskerazaleak.biz • info.euskerazaleak@gmail.com

Lekeitiar erraldoia Resurreccion Maria de Azkue IV

Juan Antonio Mogel Urkiza

Zenon Uriguen, Pasiotarra

Euskalerrian euskeraz
EUSKERAZALEAK

2018-2019 IKASTURTEA

BIZKAIERAZ 51. IKASTAROA
IRU MAILLA

Egunak: astelen eta eguasten
edo astearte eta eguenetan

Orduak: Goiz eta arratsalde

Ordaña: 150 €

Izena emoteko tokia: Euskerazaleak

Colón de Larreategi, 14-2
urrutizkiña 94 423 53 22
Bilbao 48001

Asiera: urriaren 15ean

51. CURSO DE EUSKERA BIZKAINO
3 NIVELES

Días: lunes y miércoles
o martes y jueves

Horas: Mañana y tarde

Curso completo: 150 €

Inscripciones: Euskerazaleak

Colón de Larreategi, 14-2
Teléfono 94 423 53 22
Bilbao 48001

Comienzo: 15 de octubre

ZER ALDIZKARIA

Ordaindu, mesedez, ZER aldizkaria! (ogeitamabost euro) kontu onetan:

EUSKERAZALEAK
BILBAO BIZKAIA KUTXA
ES28 2095 0000 74 2000089615

Adiskide! Mesedez ZER aldizkaria aurrera eroaten lagundu eiguzu!
Ebagi orri onetan txarteltxu au, eroan BBKra eta ordaindu 35 €.
Ez dozu ezer be idatzi bear.
Baiña, aztu barik, esan Kutxan zeure izena eta zeure errikoa.
Eskerrik asko!

Euskerazaleak
ASOCIACIÓN PARA EL FOMENTO DEL EUSKERA
Colon de Larreategi, 14 - 2.º dcha.
48001 BILBAO
Urrutizkina : 944 235 322
info.euskerazaleak@gmail.com

Laguntzaille
Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

ISSN: 1132 - 1350
Lege gordailua: BI-1452-85

Lekeitiar erraldoia Resurreccion Maria de Azkue IV

Klaudio Barroeta

16-Azkue Lexikografoa

Ez zan au ez, Azkueren bokazioa berak aitortzen dauan lez. Alan da be, Euskera-Espainera-Frantsez Iztegia, ikaragarrizko lana noski, asi eban bearrezko eta premiazko betebearra zalakoan, Koldo Mitxelenak diñoskunez. Euskal itzen kopurua geien urbildu dan iztegi au agertu zanean, pozezko oiuekin agurtu eben puntako izkuntzalariek, adibidez Hugo Schuchardtek. Ain zuzen be Atlas Linguistetatik leena prestatzen ebillenean Gillieron Frantziako lurretatik, ots, dialektologiako estudio barriak sortu ziranean, agertu zan Azkueren Iztegia. Euskalerrian zear bildutako euskalkien aztarnakin eta euskal literaturan eredutzat artu bear ziran idazleen lekukotasunaz baliatuz, lortu eban Azkuek euskeraren Iztegi istoriko bat osatutea. Ez da ba meritu gitxikoa Azkueren lan oroigarri au.

1890an Gramatika prestatzen ebillelarik, asmatu ta zirriborratu eban iztegia be ta atoan asi zan fitxak eta oarpenak idazten. 1901.eko Urriaren 6an Pierre Broussain adiskideari idazten dautso zera proposatuz: Euskera-Espainera-Frantses Iztegi bat 1902.eko neguan, bien artean argitaratzea eta argitaletxeak be aipatzen deutsoz, Garniere, Hachette etabar. Frantsera textuak itzultzeko laguntzaille baten billa ebillen noski. Baña urriaren 9an erantzuten deutso Brussainek ortografia arazoak zuzendu arte itxarotea komeniko dala. Frantsesko itzulpen ori berberak erabakin dau orduan Azkuek eta 1901.eko Azaroan frantsezko ikasketak egiteari ekiten deutso. Zeregin onetan lankide izango dan François Joseph Lapeyre Ploermeleko anaiarekin arremonetan jartzen da zorionez. Gero Toursen Louis Cho-

lellet olerkaria izango da frantsesko itzulpenari azken begirada bat emongo deutsona.

1902.eko Urriaren 10ean Bizkaiko Diputazioari zuzentzen deutso Azkuek eskari bat Iztegiaren inprimaketa eskeñiz eta Enrike Aresti lendakariak iragartzen deutso 22ko billeran Probintziako Moldiztegian 500 ale inprimatzea erabaki zala; baña 1903.eko Martxoaren 10ean barriro jotzen dau Diputaziñora, Azkuek 1.500 ale inprimatzea eskatuz. Azkuerekin konponbide batera elduteko, Uztaillaren 3an Batzorde bat autatzen dau Diputazioak: Fernando Karranza, Jose Kruzeño eta Isidoro Leon izango dira aurrerantzean arazo onekin arduratuko diranak. Beste argiratzaille batzuen aitzinkontuak eskatzen deutsoz Diputaziñokoak eta 1903.eko udan Barzelonara doa Azkue ango moldiztegiak ikustera. Azkenean, 1903.eko Iraillaren 25ean, aitzinkontu bi deutsoz Azkuek Diputazioari: Bilboko Artes Graficas-ena eta Tourseko Alfred Mameet Fils Etxearena, baña azken au argitaratzailletzat artzea proposatuz. Abenduan erabaki zan Mame moldiztegia izango zala Iztegia inprimatuko ebana eta 1904.eko Urtarrillan 2an Tours eta Pariserantz doa Azkue elburu bigaz: Iztegiaren argitararzea eta Schola Cantorum-ek eratu dauen Konposaketa Ikastarora joatea.

Urte bi ta´erdi beteko dauz Azkuek Toursen moldiztegiko probak zuzentzen 1905ean leen tomoa (A-LL) eta 1906.eko Maiatzean bigarrena (M-Z) kaleratu arte. Tourseko egotaldi onetan ainbat ostera egin ebazan, Pariseko Biblioteka Nazionalera, bertako Schola Cantorum-era, etabar, eta Londoneko Britist Museum-era ikerketak egiteko. Chillis´s Royal Hotelean ostatuzan 1904.eko Apirillaren len egunetan eta orduan lortu eban Bizkaia, Gipuzkoa ta Nafarroako iru Diputazioen ondarerako Bonaparte Printzearen eskuiskribu baliotsuak berreskuratutea. Iruren artean banatu ziran eskuiskribu oneik Karmelo Etxegaraik 1905.eko Urriaren 5ean

egindako txostenaren arabera, Azkue berak eta Arturo Kanpionek mandatari lez izenpetu ebena, bizkaitar, gipuzkoar eta nafar batek banaketan parte artuz. Orain Euskaltzaindiaren Azkue Biblioteka izatera iritsi dan orduko bere liburutegirako lortu ebazan, orrez gañera, Bonaparte Printzeak bere kontura argitaraturiko 69 lan.

Azkueren iru aletako Iztegia berargitaratu eban 1969an faksimil gisa Bilboko La Gran Enciclopedia Vasca eta Euskaltzaindia beste berargitalpen bat ari da, faksimil gisa au be, baña len argitalpenaren neurrian eta tomo batetan. Ez zan au izan Azkueren lan lexikografiko bakarra. 1918an kaleratu eban Poltsikorako Iztegia, Euskera Espainera, Espaina-Euskera, iru aletakotik laburtuta eta beste iztegi andi baten argitartzea be asi eban, Espainera-Euskera Iztegia, leen atal batzuk kaleratuz.

17-Azkue Euskaltzaina

Ez eban Azkuek oraindik izkuntza bizitza asi, 1886an Durangoko Euskal Jaietan Aristides Artiñanok Euskal Akademiaren Projektu bat aurkeztu ebanean. Aurkezpen onek ondoriorik izan ezta Pirineoen bi aldameneko euskalariek bateratzeko Hendaian (1901) eta Ondarrabin (1902) egin ziran billerak.

Bizkaiko Diputazioaren Buru zan Adolfo Gabriel Urkijok prestatu ebazan 1906an Akademiaren Arauak baña ez zan orduan be ondoriorik gertatu. Azkue bera asiko da 1909an arazo onetaz arduratzen, Hugo Schuchrdt jaunari 1914.eko Urriaren 27an adieraztera emongo deutsanez. Espainera-Euskera

Iztegia prestatzeko eta izkuntzaren ortografia arazoak zuzentzeko bearrezkoa iduritzen jakon Akademia bat sortzeaz keskatuta dabil.

Baño banako alegiñak ez dau askorik balio eta ezer lortzen 1918.eko Urtarrillaren 25ean Bizkaiko Diputazioak beste egoaldeko iru Diputazioei Euskeraren Akademia bat sor dagien proposatu arte. 1918an Oñatin antolatzen dan Eusko Ikaskuntzaren I. Batzarrean proposaturiko Arautegia onartzen da, gero 1919an lau Diputazioek berresten dabenez, Bilbon bere egoitza izango dauen Euskaltzaindiaren euspena beraiek leporatuz. Leen lau euskaltzaiñek izendatzen dira, Arturo Kanpion, Luis Eleizalde eta Julio Urkijo: bizkaitar bi, gipuzkoar bat eta nafar bat. Gero geituko da amabiraño euskalzain kopurua. Orain, dakigunez, ogeitalau dira osatzen daben Akademikideak edo Euskaltzainak.

Sekulako lana burutzen dau Azkuek Euskaltzaindian. Izatez bere bizitza guztian bera izan zan Akademia, edo eragille ordezteziña beintzat. Izkuntzaz benetako ikerketak egiteko ainbat bidaia egiten dauz atzerrietara, agiri garrantzitsuak gordetzen diran tokietara. 1922.eko Uztaillaren 10ean bidauntziz eltzen da Hamburgora, Berlinerako bidean, eta emen Abustuaren 5ean Humboldekin paper barriak aurkitzen dauz. 1908an, Kolonian egoanean, Berlinera joan zan leendabizi eta izkuntzari aleman onen eskuizkribuak ikusi ebazan. Zurichera doa 1922.eko Urrian . 1923eko Abustuan Vienan antolatu ziran Etnografiazko Jardunaldietan partaide izan zan. 1904an ikusi eban British Museumera barriro doa 1928eko udan. 1927.eko Martxoaren 10ean Espaniako Erret Akademiak akademikide izendatu eban eta 1928.eko Abenduaren 30an Madridera jo eban sarrera itzaldia irakurzeko: Euskera bereisgarri batzuk beste izkuntza zaar batzuekin gonbaratuz. 1905.etik Pariseko Elkarte Linguistikoaren kidea zan eta 1922.eko Maiatzaren 20an Errusiako Zientzia Akademiak be kide izendatu eban.

Bidaia, ikerketa eta arremon guzti oneik Azkue zientzia arazoetan eldua erakusten deuskue, Gipuzkoako Diputazioan eratzen ziran Euskaltzaindiaren billeretan gai askotaz lanak aurkezten ebazanak, baña bereziki ororen izkuntza literario bakar bat arauperatzeko egiñak. Onetzaz Azkuek ebazan ideiak 1935.eko lan batetan aurkitzen doguz, Gipuzkera osotua, Gipuzkoako euskalkia artu eban Azkuek guretzat beste euskalkiekin bere

eredua osatuz. Lan au Gaubekak argitaratu eban Bermeon 184 orrialdedun liburu batetan.

Euskeraren batasun eta araupetza au bideratzeko bearreskoak izan ziran Azkuek berak aurretiaz egindako euskalkien ikerketak. 1923an argitaraturiko 930 orrialdedun Euskal Morfologia zinez egindako lanetik asita, euskalkietaz lanak prestatuko ditu, ots, Aezkera edo Petiriberro inguruetako mintzaira (1928, 126 orrialde) Erronkariko euskalkiaren berezitasunak (1932, 203 orrialde) eta Gipuzkoako aditza (1932, 151 orrialde) eun orrialdetik gorakoak bakarrik aipatuz, euskalkiak ondo ezagutu ondoren izkuntza baturantz doan Azkue erakutsiko deuskuenak. Euskalkiei buruz Aditz Flexionarioa eta Erizkizundi Irukoitza lan baliogarriak be burutu ebazan. Pirineoen bi aldamenetako Euskalerrian zear sarri egindako osterek izkuntza bizian murgiltzeko parada emon eutsozan Azkueri eta iñork baño geiago oroitgarri andiagoa euskerari eraikitzeko era.

Larogeita zazpi urtedun 1951an il zanean, euskal kulturako arlo guztietan egindako lanen oñordea itzi zezaiguken. Edozeñek burua zurituko luke musika, folklore edo izkuntzaritza arloan, onek egindako lan bakar batekin. Danetarikoak egin ebazan Azkuek eta alako persona bat bersortzea oso zailla izango da. Eta euskal aberriaren alde berak egin ebana guztiagaitik eskerrak emotea ezinezkoa da.

Gure Lontxo

Arantza Leniz (Illargi)

EUSKERAZALEAK ALKARTEA. BILBAO.

2017ko sari lehiaketa. bostgarren saria

Ai, gure Lontxo! Atzo il eta gaur lurperatu. Nire betiko laguna. Txikitatik orain arteko lagun miña. Azken urteetan alzheimerra eukan eta ez zan berbera, baiña gaztetan beragaz ez genduan eukiten aspertzeko astirik. Alaia, bizkorra, xelebrea, lagunen lagun ona... Gauza onak baiño besterik ezin dodaz esan beratazz, eta ez ilda dagoalako, geure alkarregaz bizi izan dogun denporan be ez garalako iñoiz benetan aserretu. Nozonoz neure gustukoa ez zan zeozer esanez edo eginez mindu egiten baninduan be, bere izaera goxoaz laster adiskidetzen giñan.



Itxurea be ona eukan gure Lontxok: ule kizkur baltza, azalez be baltzerana, begi eder illunak, altoa ez baiña neurri onekoa. Neskak bere atzetik ebilkozan eta berak baekian, baiña errikoekaz baiño gurago eban kanpokoekaz ligatzea. Iñoiz ez deusku aitortu onen arrazoia, baiña ala zan. Gero ta be Bilbo ondoko neska bategaz ezkondu zan eta ara joan zan bizitzera. Penea emon eustan neure betiko laguna kanpora bizitzera joan zanean, sarritan ez nebalako ikusiko, baiña bera alegintzen zan errira etorten edozein momentutan, geienbat jai egunetan. Gaztetan jai zalea bazan nagusitan be zaletasun ori ez eban galdu. Makiñatxu bat barre egiten genduan jaietan gure Lontxogaz. Arek ziran jaiak! Lorik be ez genduan egiten eta nekatu barik genbiltzan ara ta ona. Koadrilla andia giñan, danok parrandazaleak, baiña Lontxo danon buru.

Dantzari trebea zan Lontxo eta ez eban faltaten ondoan neskarik beragaz dantzan egiteko -errikoak beintzat- baiña, len esan deutsuedan moduan, berak kanpotarrak gurago ebazan.

Jai egun baten -ez naz gogoratzen zein jai zan, baiña bai negua zana otz andia egiten ebalako – Lontxo, betiko lez, dantzari ebillen goiko plazan. Alako baten neska bi

ikusi ebazan. Ez ziran ezagunak. Begira ta begira ebilkien Lontxo neskoi. Noiz bein irriparretxo bat be egiten eutsen. Ankak gero ta gorago ta arinago mugitzen asi zan, neskei atentziñoa emon gurean. Neskek ez eutsoen jaramonik ere egiten, baiña bera jo ta ke zabaletakoa dantzan. Musika lentoa joten asi zanean Mariasun -geure kaleko neska galanta- urreratu jakon Lontxori beragaz dantzan egitekotan. Biak dantzan asi ta minutu erdi barru, Mariasun gorri-gorri eginda, Lontxo itzi eta bere lagunengana joan zan. Jarraian Karmelita –mertzerian lan egiten eban neska jatorra- urreratu jakon dantzan egiteko. Dantzan ebiltzala, Karmelitari belarrira zeozer esan eta au be, Lontxo itzi eta arrapaladan joaten ikusi neban. Lontxo kanpotar neska biei adi ta zurt begira egoan. Orretan egoala, beragana urreratu eta Mariasun eta Karmelitagaz zer gertatu jakon galdetu neutson. Lontxok aitortu eustan estanko ondoko atean egozan kanpotar neska bietan fijatu zala eta euren atentziñoa lortu gurean ebillela, ordura arte lortu barik. Beragaz dantzan egiteko gonbidapena egitera joakela kanpotar neskei eta Mariasun etorri jakonean, au gaiñetik kentzeko burura lenengo etorri jakona esan eutson.

- Zer da ba gure kaleko Mariasuneri esan deutsazuna?

- Ba esan deutsat badakidala ze koloretako kuleroak daroazan.

- Ez da izango egia! Lotsabakoa zara zu e!

- Ez, Txomin, txantxetan ibilli naz besterik ez.

- Bai, baiña... eta berak, Mariasunek, zer esan deutsu orduan?

- Esan deust -Bai zera! Zera jakingo dozu zuk nire kuleroen kolorearen barri!

- Baietz ba, larrosa kolorekoak dira, ez? –esan deutsat jarraian eta bere aurpegia ikusterakoan konturatu naz igarri egin dodana.

- Gizona! Eta zelan asmatu dozu ba?

- Ez dakizu bere eskatza nire eskatzaren aurrean dagoana eta an eskegitzen dauzana erropak?

- Ai zu barrabana! Eta azkenean zelan amaitu da istorioa?

- Ba Mariasunek galdetu deust siñisgatx ea zelan dakidan kuleroen kolorea zein dan eta orduan esan deutsat nire txarolezko zapata distiratsuetan islatuta ikusi dodazala eta... badakizu, Txomin? Siñestu egin deust! Ja ja ja ja...

- Eta Karmelitari zer esan deutsazu?

- Gauza bardina.

- Eta bere kuleroen kolorea be asmatu egin dozu?

- Bai.

- Eta zelan?

- Ba badakizu, Txomin, Karmelitak mertzerian lan egiten dauana eta lengo egunean amak botoiak erostera bialdu neban ara. Sartu nintzanean Karmelita gure goiko Nikolasari kuleroak eraskusten ibili zan. Nikolasak beretzat zuriak erakusteko esan eutson eta Karmelitak zurien artean urdiñak ere atara eutsozan, orain modan dagozala esanda, berak be azkenak urdiñak artu dauzala eta garbi onekoak dirala.

- Ai, Lontxo, Lontxo...

Batzutan txantxak egiterakoan neurritik urteten eban, baiña ez dakit zelan, iñogaz ez zan aserretzen.

Dantzaldiko eguna eta gero, illabete bat igarota edo, egun orretan estankoaren ondoan egozan kanpotar neskato biak kasinoko tabernan ikusi genduzan domeka arratsalde baten. Lontxo eurengana urreratu zan, zeozer esan eta irurak asi ziran barreka.

- Txomin, ator gugana! –agindu eustan Lontxok.

Neskak oso jatorrak ziran eta arratsalde oso atsegiña igaro genduan. Lontxo, betiko moduan, neskak bereganatzeko guzurtxoak esaten asi jaken.

Lontxo igeltseroa zan bere aitaren moduan eta bere aititaren moduan, baiña nesken aurrean andiarena egiteko batan injiñerua, bestean medikua edo legegizona zala esaten eban. Gaiñera etorri andikoa zan lez, errez siñesten eutsoen esandako guzti guztia. Ni neu be zurtz eginda izten neban, eta ori ondo ezagutzen nebana gure Lontxo.

Domeka arratsalde ori eta gero, astegun baten, Aldatzeta kalean ikusi ebazan Lontxok neska biak. Laneko erropekaz eta losaz beteriko eskorga bategaz joian Lontxo eta neskak bera orrela ikustea ez eban batere gogoko, berak ez dakit zer zala esan ondoren (injiñerua, medikua, abokatua...). Orduan nire lagunari ez jakon ezer





obarik otu, eskorgea itzi eta Aldatzeta kaletik korrika gorantz egitea baiño. Eskorgea goitik bera azkar abiatu zan Elorriaga tabernaraiño, Lontxok losak eroan bear izan ebazan lekuraiño. Eroan bai, baiña ez orrela. Jazintoren, Lontxoren aitaren txilioak 100 kilometro itzulinguruan entzun ziran egun orretan. Argi argi gogoratzen naz egun orretaz, ni neu be bertan nengoalako nire lagunari kiku bat egitera joanda. Gaur be gertatutakoa gogoratzerakoan barregurea emoten deust.

Beste baten be ikusi ebazan Lontxok kanpotar neska biak eta neu be egun orretan beragaz nengoan. Zapatu illuntze bat zan eta portutik genbilzan eurekaz topo egin genduanean. Alako baten, Lontxok urrunetik Seat 600 bat ikusi eban. Ukunduaz emon eustan neu be konturatu naiten. Urre geunkanean kotxea, neska biei gonbitea luzatu eutsen:

-Neskak, bagoaz bueltatxo bat emotera nire kotxean? Gura dozue?

Neskak baietz erantzun eutsoen eta orduan Lontxo giltzak billatzearen plantak egiten asi zan. Orretan ebillela, neska bietariko batek boltsatik giltzak atarata galdetu eutson:

- Onek dira, Lontxo, billa zabiltzan giltzak?

Ez pentsa Lontxo lotsatu zanik. Irriparre batez Bai, orrek dira! esan eta kotxea zabaltzeko eskatu eutson neskeari.

Gure Lontxoren milla milloi pasadizu kontako neuskizuez, baiña gaurkoz naiko dala uste dot. Ori bai, zuok ez dakizuen gauzatxu bat konta bear deutsuet. Azkenean Lontxo kanpotar bi onetariko neska bategaz ezkondu zan, Edurnegaz. Lontxoren illeta-eleizkizunetan ikusi neban urte asko garrenean. Betiko moduan egoan Edurne. Lontxoren kontuak gogoratzen asi giñan eta gure tristura une batez alde batera iztea lortu genduan. Ori izango zan, ziur nago, gure Lontxok gura izango ebana.

Agur, laguna!

Juan Antonio Mogel Urkiza

Zenon Uriguen, Pasiotarra

Jatorria:

Mogel abizena ez da euskalduna, Alfaro, Errioxatik etorria baño. Juan Antonioren –aitona- Rueska, Calatayud ondoan jaioa da. Bere bizibidea medikua izanik Markinara bialdua izan zan. Emen jaioa dogu Juan Antonioren aita, medikuntza ikasteak amaiturik Agurain errira eta geroago Eibarrera bialdua izan zana. Emen jaioa dogu gure Juan Antonio Mogel. Bere amaren izena ezin dogu jaso, eta lau urtekin bere gurasoekin Deba eta Markinara aldatuak izan dira. Juan Antonio gazte erne, burutsua eta eraginkorra da euskera ikasteko, elizari laguntzeko. Bere etorkizunaren jaun ta jabe izan nai dau eta Jaunaren graziagaz apaiz izateko erabaki sendoa artu dau. Emen historiaren utzuneagaitik ez daukagu datarik nun egin zituan eliz ikasketak eta noiz izan zan abade. 1788 urtean Xemein Markinako elizaren Parroko arduraduna dala dakigu.

Ateak eta biotza zabalik:

Juan Antonio abadea abegi eta txera undikoa dogu eta abade etxean arrera ona emoten dautse Frantzia aldetik iraulpenetik igeska datozen apaizai, euretatik batzuk euskaldunak. Alde batetik pobre bizi da eta pobreago ilko da. Beste aldetik zorioneko adizkideak, idazle jatorrak egingo ditu: Aita Añibarro, Juan Bautista Agirre, Pablo Astarloa, Vargas Ponce, eta, batez be Humboldt filologo jakintsua gure izkuntza zarraren asiera eta biziera jakin-miñez Euzkadira etorria.

Euskal idazlaria:

Mogelek biotz-biotzez maite da euskera eta euskal erria. Orduko garaietan ez dago gure errietan libururik. Zer egin? Juan Antonio abade ona, erriaren maitale zintzoa ta errikoia izanik baserritarrakin arreman zintzo ta sakonak ditu. Eta jakiña erria da euskeraren iturri aberatsa eta ugaria, "izkuntzaren eskola". Erriak egin eta eragiten



ditu historiaren goraberak familian ta gizartean. Mogelen zoragarrizko buruan sortzen da liburu bat egiteko asmoa erriaren xelebrekeri guztiak erriko giroan bapo jarririk eta argitaratuko dau bere idazlan ospetsu ta xelebrea: **PERU ABARKA el doctor Peru Abarka, catedrático de la lengua Baska en la Universidad de Basarte**. Auxe da Juan Antonioren idazlan gorena. Alkarrizketa gozatsu bat da Euskal baserritar berba-jarioduna eta Galiziatar bizargile, Maixu Juan´en artean. Alkarrizketa onetan oso ondo azalduko dabez orain arteko oiturak eta bizierak, iruzur ta azpikeriak, zoritxarrak eta zorionak, euskal gizartearen goraberak eta eztabaidak. Peru Abarkak zati bi ditu 40 orrialde gasteleraz eta 200 orrialde euskeraz. Euskal idaz lanetan alaigarriena da, jakingarria zientzia gaietan, batez be erri izkunzta zarra ain bikain egiñez erriaren aurreko, oraingo eta geroko zerak ondo baño obeto idatzi eta adieraziz. Euskeraz eginiko lenengo eleberria da eta bizkaieraz agertzen dan lenengo liburua. Moguel jauna da, benetan, Bizkai-euskalkiaren sortzalea. Mogelen liburuak **zazpi dira**: euskeraz eta erderaz egiñak, danak euskera eta kristau bizibideari buruz. **Gogoa dan tokian, aldaparik ez**.

EUSKALERRIAREN EDESTIA-I (VIII.)

2. ZATIAN.



Sarreratik datorrena.

Euskerea zer dan ez dakienengaitik entzuten doguzenak.

Gaur zoritxarrez esaten dabenagaitik entzuten dogu, Gaztelera eta Frantzez izkuntzak gureak be badirala, eta ez da olan iñundik iñora begituta be.

Adibidez:

Gaztelerea, lenauko Burgos eta Kantabria bitarteko euskaldun, ta erromatar menperatzailleak ekarri eben latiñagaz euren artean indarrez edo ta gudamende aitu edo ulermen baten ezartzeko, sortu zan latinkumezko mintzadar bat baño besterik ez da.

Eta Afrika, Asia, ta Europa osoan sortu ziran antzera, Asturiasen bable, Nafar ego aldean ta Aragoi ipar bitartean nafar aragonesa edo ta gaurko katalana, erromatarren gudamenpeko alegiñetan sortu ziran.

Latiñkume orreik ez ziran izkuntzak, euren arteko arazoetatik urteteko, mendeko indarrean beartuta sortu ziran zentzunbako mintzadar batzuk baiño, besterik ez.

Beste gauza batzuk dira, Erromatar-menperatzailleak katolikotasunean batzagotzeko eta berezko erriaren izkuntzak ezereztuteko ibili ebezan leentasunak, eleiza onek 2.000 urtetan Euskerea ta beste berezko izkuntzak debekatuz eta latiñ ta latinkumeak erri izkuntza lez beartuta egin dauan antzera, berezko izkuntz oiek aienatu edo ezereztu zitezen.

Izkuntza, leiñu edo erri batek bere oiturazko azkuntza bidean ulermentzeko, sortzen dauan tresneria da, eta ez edozelakua, euren senezko tresneri biurtzen dalako.

Gure bizitzarako ***EUSKALDUNEN AMA*** izendatu gendun, eta bere izena artuta, euskal nortasundunezkoak izatera, biurtu ginduzan.

Euskerea, euskal-nortasuna da, gure sen eta sendiaren arduradunezko ardatza biurtu dalako, eta jakituriz ta bakezko ulermenean betetan ba doguz gure azturazko eragilletasunak, urbillago eukiko doguz beste erriak, Jaungoikuari begira gurea lez, bizitza oneri ulermeneko erantzun eder bat emondakoak diralako.

Baita, Jainkoaren legeagaz nortasundutakoak alkartuta ulermendu gaitezan, danok gai-izadi onek bear dauan eragilletasunagaz arduratuta.

Ez dira edozer gauza nortasundutako izaera orreik, gure ***euskal arbasoen izaeran***, lur eta Jainkoari begira, oituraz egiten ebezan gauza guztien egokituagaz, lortu ebezalako gaur oraindiño daukaguzan askatasunezko demokraziaren zentzu eder orreik.

Orregaitik dira nortasunezkoak Jendekuntzazko Izkuntzak, gure Euskalerriaren arbasoetatik lez, euren mintzazko senetik gaur arte, oituraz eginekoak gogoratuz, agertu egiten doguzelako ikasitakoak euren ekanduzko izatasun ederrenean.

Gusti ori eukingo ete dabe, guda-indarrez eta menperatasunezko ekintzan sortutako latinkumezko mintzadar orreik ?.

Mundu onen gizadia, Jainkoaren Legean gauza orreik lortzeko, berezko nortasunaren zentzuan ulermenduta lortu bear dabez, danon arteko ulermenak parean ezarri ondoren ta aurkeztuta, bardindu bear diralako, erabagi on orreik Jainkoaren Legean lortu gura badira.

Beste gauza bat da, norberen sasiulermenak beste buruetan sartu gurea, or ez dalako agertzen, ez Jainko Legerik, ez ezer, ***norkerizko alegiñetatik kanpo***.

Euskereak daukan adierazpenaren(1) mailla aundia.

Latin-kumezko mintzadarrak, galdu edo ez ba ebezan nortasunezko izaera orreik lortu, zelan bardindu edo geiegitu egin-leikez euskereak bere garbitasunean irudimentzen dauan jendekuntzagaz ?.

Euren asmakuntzagaz beartuta: ***orokortasunaren alan bearrezkoa gaitik ?***(2).

Nungo jainkoagandik daukiez artuta opide edo eliz-opide(3) orreik ?.

1.960ko amarkadan, espainiar elejakintzaren irasle edo sortzaille izan zan Menendez ta Pidaltar Ramoneri entzun neutson: ***gaztelerazko latinkumea irudizko zentzunean sendotzeko, 1.971 euskal-itzekaz tartean sartuta***

(1) Adierazpenaren mailla aundia = grandes cualidades interpretativas-explicativas. (2) Orokortasunean alanbearrezkoagaitik = por su destino en lo Univer-sal ?. (3) Opide, edo eleiz-opide = prebendas.

egin bear izan ebela, eta ata guzti, ainbat itzezko irudiak zentzunezko gabetasunean geratu zirala.

Adibidez: gaztelerazko playa itzak, zelako zentzuzko ulermenean irudimenduta kokatzen gaitu ?.

Badauka zer ikusirik areagaz, arearen leguntasunagaz[1] edo ta areatutako arri ta maskor ondarrarekin ?[2].

Euskerazko itza: ***Laida, Ondarru, edo Mutrikuren itsas bazterreko ondartzak, ez ote gaitu kokatzen, ulermeneko zentzuan adierazi[3] gura dogun irudimenezko lekuan ?***.

Euskereak, ez dau galdu bear, Omosapiens, kromañon edo euskaldunak, milla urte as-kotako azturan, bizitzari adierazpeneko ekintzan[4] emon eutson zentzuzko xeetasunetik ezer, or, dagoelako gure jendekuntzaren garaipena eta batez-be: ***gure nortasunaren oituran ekanduta, zentzu ederrenetariko izatasuna.***

Ondartza euskeraz: ***arri ta maskor ondarrarekin areatuta dagon tokian kokatzen gaitu***, eta Laidako itsas-bazterrean dagoela gaiñeratu egin ezkero, or non agertzen jakun neurri aundi baten irudimenduta Laidako auzo edo erritxoan, maskor-ondarrarekin areatuta dagoan goragarrizko itsas-bazter ori.

Gaurko bizitza, ez da erreza euskaldunentzat eta gitxiago euskerearentzat, zoritxarrez gero ta geiagoko erreztasunagaitik edo ta alpertasunagaitik ?. Ez doguz gure zarren iztegiak eskuetan artzen, eta erreztasunera joaten garelako ***gu gabiltz gazteleratuten euskerea***, bai eta, ori ez bada naikoa, ia erderaz edo gazteleratutako iztegiak agertzen doguz.

Euskal esangurea edo ta sinismena galdu ete doguz ?.

Gaur gure ***euskaletxea*** garbi eta argitsu agertu daiten egin bear doguzanak, bereztasun onek daukan ***legearen*** argitasunean egin bear doguz, maldaberan doan edo ta porrot eginda dagon Europa onen katolikotasunezko merkantil eritzi gaiñetik, oraindiño danok dakigulako, zelako erreztasuna daukien zankartekoak ipinten maltzurrezko merkantil guzurti orreik, ekintzan ipini bear doguzan zentzun oneko azpiegiturak arazotzeko edo ezereztuteko.

Euskaldunek baiña, eurak ez daukiezan iru gauza eder daukaguz elburua lortzeko:

a) Euskal ekintzan jainkoari begira, demokraziaren izatasunezko sinismena.

b) Arrazoia.

d) Arduradunak izan da, gogamen[1] bi orreik emoten dauskuen indarra.

Ondo baiño obeto zaindu eta sendotu egin bear doguzenak, sasikatoliko-menperatzail onein morroitasunetik urteteko len bait-len, gure zentzuzko askatasunean bizi gura ba dogu.

Euskal seme alabak, iñundik iñora be ez doguz galdu bear gure ikusmenetik[2] aztarna orreik, kontu aundian artuta: ***Euskerea dalagure izaeraren ardatz nagusia***.

(1) Arearen Leuntasunagaz = tersura, o lisura de la arena. (2) Maskor-ondarrak = deshechos de las conchas de las ostras, mejillones, caracol, etc. (3) Adi-erazi = indicar. (4) Bizitzari Adierazpeneko ekintzan = interpretaciòn que el vasco le diò a la vida.

(1) Gogamen = pensamiento, consideraciòn, concepto, idea. (2) Gure ikusmenetik = desde nuestra consideraciòn o punto de vista.

Erlijioa[1].

Asieraren leen jaio barriko gizarteak, ezagutu ez eben gai bereztasundutako izadi bateri aurka egin bear eutsoen, eta bere izaeran, ain gordiñezko ostagi aldaketak[2] ikusita, bildurtu be egin ziran.

Aukera orreitan, bildurrean ezartzea erreza dalako, laster asi ziran gogoratzen edo ta konturatuten, izadi onen gaiñean baten bat egon bear zala, eta bizitzeko egin bear ebezan zeregin guztien eskeintzazko bidetik, Jaungoikuari babesa eskatzen asi ziran euren giza samaldarentzat[3], bereratasunaren[4] onezko aukerak danon aisetasunean[5] egokitu zitezen.

Beste alde batetik, gure izpirituzko Arimak giza itxuran mozorrotuta, bat eginda agertzen dan gorputzagaz, ekanduan[6] antolamendu on bat bear daualako, ondo ulertutako zentzuan egokitu ziran, gai gorputz orren egarrizko arrazoietan.

Eta danoen gogoetatik ez daiten suntsitu[7], edo ta daukagun gai-mozorrotutako gorputz au, epe labur baten iltzen dala ez gaitezan aztu: ***beste arrazoi, edo ez dakigun izaera batekoak garela konturatu ziran***.

Orregaitik, beste gauzarik ezin dogulako egin, ta ezer egin gabe noraezean agertzen garelako, estuagotasunezko bide ortatik agertu zan, antolamendu on baten bearkuntza elkar batzeko erlijiñozko arloetan.

Omosapiensen antziñeko erlijiozko aztiketa[8] edo sorginkeria.

Omosapiensen gizaseme alabak leen, Ludi onen egille, goiko Jauna, edo Jaungoikua gurtzen eben, eta geroago ta oituran nastu ziranean, eurak usten eben agurgarrizkoak ziran abel, su, gauza, edo ta euren irudizko sasijainkoari gurtzen eutsoen.

(1) Religiòn, (Religare) = juntarnos todos con una misma intenciòn costumbrista, en torno an un SER que consideramos DIOS para en nuestra ignorancia, pedir por nuestras necesidades vitales. (2) Ostagi-aldaketak = cambios atmosfèricos. (3) Giza-samalda = grupo de personas. (4) Bereratasunean onezko aukerak = abundancia, prosperidad. (5) Aisetasuna = acomodo, desahogo. (6) Ekanduan = costumbe, uso, moral o moralidad de nuestros usos y costumbres. (7) Suntsitu = desvanecerse, desaparecer. (8) Aztiketa = presagio, adivinaciòn, augurio, prediciòn, magia, hechiceria

Illak lurperatzeko, euren erak euki ebezan, Arrindatar Anesen ***Magia y Religión primitiva de los vascos´***en liburuan ekarten dauan lez, gorputzak baiña, beti ekialderuntz bideratuta.

Agurgarrizko jainko orreri otoitz egiteko, leiñuaren aitona izaten zanak, abadeenak egiten ebazan.

Eta sasijainkoak ugaritu ziranean, bakotzari egin bear jakozan gurketaren ospe edo andimandikeriak, izkuntz berezi edo nortasun bakoitzarekikoak, euren jendekuntzaren zentzunezko neurriekin gurtzen ebezan, jainkotasunezko era ezberdin orreik.

Orregaitik, sasijainko askoko edo politeismo orreitan sartu zirenak ospe aundia emon gurean, asmakizun orreik egiz edo zentzunezkoak biurtzeko, abadeak be ugaritu ziran, eta danon gaiñetik, euren batzarren agindupean bideratzen ebazan ospe aundiz, eskeintzazko gurketa orreik.

Totem edo aberearen gurketara aldatu ziranean, Jaungoikua Eguzkiagaitik aldatzen dabe, eta egiten daben guztia, Eguzkiagaz nastu egiten dabe.

Lurgintzaren jendekuntzazkoak, Amaren-agindupera(1) aldatzen dira, eta Iletargiak daukazan aldaketa guztiekaz nastu ebezan euren gurketako zeregiñak.

Emen abadeenak, edo gurketa orreik bideratzen ebezanak, ama, andrea, edo atso-sorgiñak izaten ziran.

Buruko ezurraren gurketan be ibilten ziran, eta gorputzaren aragiak usteltzen ziranean burua kenduten eutsoen, gero eurak buruko ezur ori gurtzeko.

Artzaintzazko jendekuntzan, Zeruko Jauna, Eguzkiaren Jauntzatasunagaz ibilten dabe, eta amaren-agindupean sartuta, zezen, idi, bei, eta beste abere asko gurtzen dabez.



Jainko askoren jendekuntzan sartu ziranean, irazi ebazan eleiz ederretan, jainkotasunezko arri irudi asko gurtzen dabez, euren abesti, itzaldi, eskari eta eleizkizunetan, al eben arrotasunezko azalpen aundienagaz.

Eta emendik aurrera gizon-emakumeek bizitzeko bear ebezan guztietatik, ainbeste sasijainko agertu ziran.

Atutxa´tar Paul

Zornotzan 2.017ko urtean Urrillaren 16an

(1)Amaren.agindupera = matriarcado. (2) Deban dago izen bardiñagaz "Arno-Mendia". (3) Eraman-ona = filosofia moral.

Euskaldun barrientzat ikasten

Zazpi utsak

ARPIDETZAKO TXARTELA

ZER aldizkaria artu gura dot eta bialdu egidazue zuzenbide onetara:

.....tar .....

..... kalean (auzoan.....zenbakian

.....errian, ...errialdean (probintzian)

Arpidetza ordaintzeko (ogeitamabost euro) kontu onetan:

Euskerazaleak, Bilbao bizkaia kutxa : ES28 2095 0000 74 2000089615 zenbakidun diru-kontura.

ZABALDU DAGIZUN "ZER". Arpidedun bakoitxak billatu begi beste bat!

EUSKERAZALEAK. Colon de Larreategi, 14-2. Tel. 94 423 53 22. Bilbao - 48001
info.euskerazaleak@gmail.com.



Egun zoragarri au eldu da berriz.
Pozan pozez biotzak beterik. (bis)

Mendietako baserrietan
kaleko plaza danetan
San Juan suak piztutzen dira
Gau zoragarri onetan.

Au da eguna zoragarria
kontsolatzeko mundu guztia.

Ez da inun gizonik
San Juan dan baizen
Oso goitar ta aundirik
Arkitzen. (bis)

Au da eguna zoragarria
kontsolatzeko mundu guztia

Amagandik inoiz jaio da gizona
ez dago zeruan alakorik

Ama semeagandik
zu jaio zinan
mirariz beterik donian

Poztu gizonak abestu erriak
San Juanen egun miragarrian. (bis)

Igaz ere San Juan zan, eta
aurten ere San Juan Bautista.

Mendietako baserrietan
kaleko plaza danetan
San Juan suak piztutzen dira
gau zoragarri onetan.

San Juan Sua